Munduko XV. Futbol Txapelketa

Anghel Iordanescu

● Bete-betean asmatu zuen hautatzaile errumaniarrak estatubatuarren kontra bost defentsa ipintzean, etxekoek ezin izan baitzuten euren jokoa egin, hots, baloiak luze botaz arriskua sortu. Gainera, Errumaniako lateralek igotzeko askatasuna izan zuten.

Grezia

● Greziako selekzioa, Errusia bezala, bi partidu eta bigarren aldia da arlo honetan sartzen duguna. Bi neurketetan ez du puntu bakar bat bera ere lortu. Zortzi gol jaso ditu. Berak, aldiz, oraindik ez du bakar bat ere sartu. Orain arte behintzat, Mundialeko jokorik txarrena egin du.



Taldeko jokaldia

Errumaniaren eta EEBBen arteko partiduko 17. minutua zen lehen gola iritsi zenean. Hagi ezkerreko hegaletik ongi igo zen eta Selymes lateralari pasatu zion baloia, honek berriro ere Hagiri itzuli. Honek Raducioiuri, eta aurrelariak eskuinetik igo berria zen Petrescuri. Lateralak erdiraketa egin beharrean atera jaurtikitzea erabaki zuen.

Bulgariak badu itxaropenik

4 BULGARIA

Mikhailov (*); Kremenliev (*), Ivanov (*), Hubtxev (*), Tzvetanov (*); Iankov (*), Letxkov (* *), Sirakov (*), Balakov (* *); Kostadinov (•), Stoitxkov (*). Kiriakov (-) Tzvetanoven ordez (76. min.), eta Borimirov (*) Kostadinoven ordez (82. min.).

0 GREZIA

Amatzidis (•); Apostolakis (*), Karataidis (•), Kalitzakis (•), Karagianis (*); Alexoudis (•), Hantzidis (•), Machlas (*), Nioplias (*); Marangos (•), Kofidis (•). Mitropoulos (*) Hantzidisen ordez (45. min), Dimitriadis (•) Alexoudisen ordez (58. mim.).

GOLAK: 1-0: Stoitxkov (3. min). **2-0:** Stoitxkov (54. min.). **3-0:** Letxkov (65. min.). **4-0:** Borimirov (90. min.).

ARBITROA: Ali-Mohamed Bujsaim (Arabiar Emiratoak). Zortzi txartel hori: Alexoudis, Hubtxev, Ivanov, Iankov, Hantzidis, Mitropoulos, Karagianis, Borimirov.

Bulgariak historiako bere lehen garaipena lortu zuen Munduko Txapelketa batean, Grezia talde ahularen kontra. Dimitar Peneven gizonek lau gol egin zizkion beharbada Mundial honetan talderik kaskarrena denari, baina ez zuten egia esan joko onegirik erakutsi. Ez zuten behar izan.

Panagoulias entrenatzaile greziarrak aldaketa asko egin zituen, Argentinaren aurka agertutako irudia hobetu asmoz. Egia esan, ezer gutxirako balio izan zion. Hirugarren minuturako jadanik aurreratu egin zen Bulgaria, Stoitxkovek penaltiz sartutako golari esker. Hortik aurrera, Bulgaria lasai eta Grezia zer egin ezean. Stoitxkovek bigarren gola ere penaltiz egin zuen eta markagailua Letxkovek eta Borimirovek biribildu zuten.

Aurrerapauso itzela

2 SAUDIAR ARABIA

Al Deayea (*); Al Anazi (*), Madani (* *), Al Khlawi (*), Al Jawad *); Al Bishi (*), Amin (* *), Al Muwalid (*), Jebreen (*); Al Jaber (*), Owairan (*). Zebermawi (*) Al Anaziren ordez (30. min.), eta Al Ghashiyan (-) Al Jaberren ordez (79. min.).

1 MAROKKO

Azmi (*); Abdellah (*), El Hadrioui (*), El Khalej (*), Triki (*); Naybet (*), Azzouzi (*), Hababi (*), Daoudi (*); Bahja (*), Mohammed Chaouch (* *). El Ghrissi (*) El Khlalejen ordez (46. min.) eta El Hadji (*) Hababiren ordez (72. min.).

GOLAK: 1-0: Al Jaber, penaltiz (6. minutua). **1-1:** Chaouch (26. minutua). **2-1:** Amin (45. minutua).

ARBITROA: Philip Don (Ingalaterra). Bost txartel hori: Jebreen, Al Muwalid, Amin, El Hadrioui, Naybet.

Saudiar Arabiak sailkapena lortzeko aurrerapauso handia eman zuen larunbat arratsaldean, Marokkori 2-1 irabazi baitzion, nahiz eta azken selekzio honek joko hobexea egin. Orain Saudiar Arabiako selekzioak hiru puntu ditu bere sailkapenean, eta bihar Belgika multzoko liderraren aurka jokatuko du. Marokkok, aldiz, Holandari egin beharko dio aurre.

Partidua bera ez zen oso polita izan, eta marokkoarrek golik ezin sartua izan zen gakoa. Saudiar Arabiakoek, aldiz, ez zuten aukera askorik sortu baina bi gol egin zituzten. Garaipen honekin pixka bat aberatsago bihurtu dira gainera bertako selekziokoak, jokalari bakoitzak Mercedes bana eta ehun mila dolar jaso baitzituen.

BERTATIK

•••

Javier Cillero

RENO

Maturana bere labirintoan

Luz —«ez daukat zerikusirik gizon horrekin»— Escobar Basqueseko langilea dugu, Bogotan jaioa. Azalpenak eman behar dizkio Renoko jendeari abizena dela eta. Garcia Marquez eta Boteroren herrian, trafikatzailearen izenak lortu du oihartzuna EEBBetan. Luzek futbolean zuen itxaropena herriaren irudia aldatzeko. EEBBetako kazetarien artean jakingura izugarria piztu zuen Kolonbiak Mundialen atarian. Hori dela eta, 'Sports Ilustrated' aldizkarikoek erreportaia luzea eskaini behar Kolonbiari eta bertara joan ziren. Escobar hil denetik futbolaren eta drogaren arteko loturak eten egin dira Kolonbian. Ez denak, ordea. Droga taldeen heredentzia oso astuna da. Francisco Santos, Bogotako 'El Tiempo' egunkariko zuzendariak halaxe aitortzen du. Droga trafikatzaileek finantzatu dute Kolonbiaren aurrerakada futbolean. Escobarrek zelaiak eraiki zituen Medellinen, egoitzak berriztatu eta arropak erosi. Gainera, Kolonbiako jokalariak baizik ez zituen onartzen taldean. Eta berak ekarri zuen Maturana. «Gure herriak biziki sufritu du eta futbolak mina arintzen du» dio Maturanak. Futbolaren bidez bestelako Kolonbia erakutsi dute. Maturanak aholkuak ematen dizkie jokalariei eta hauen emazteei, nola jantzi, mintzatu eta abar. Heziketa deritzo honi Pachok. Orain urte batzuk, M-19 mugimenduak Maturana ezarri zuen Kolonbiako hauteskundeetako zerrendan. Futbola bere herria da. Mina eta loria. Kolonbia. Boliviak koka gehiago ekoizten du. EEBBak bezero nagusi dira kokainaren merkatuan. Brasilek droga ekoizteko ekai kimiko gehienak lantzen ditu. Baina beti Kolonbia jendearen ahotan. «Herria suntsituta dago» dio Luzek. Eta denak Pacho Maturanaren zain, zer egingo duen Bolivarren kastako haginlariak.

YANKI GOLHOME

Mattin